

**EUSKADIREN JARRERA “NPB-AREN AZTERKETAREN” AURREAN****1.- Ordainketa bakarraren sinplifikazioa.**

- Ordainketa Bakar edo Banandutako Ordainketa sisteman oinarritutako NPBaren egungo laguntza-eskema arbuiazen dugu, laguntzak banatzeak (ekoizpen-ordainik gabeko zuzeneko laguntzak) jarduera eremu jakin batzuetara mugatzen duelako, eta gainerakoetan, ordea, nekazaritza desagerrarazten duelako. Euskadiren aburuz, bizirik dagoen nekazaritza behar du Europak bere eskualde guztietan. Zentzu honetan, “mediku-azterketak” ez du 1992. urteaz geroztik jasaten ari den laguntza-eskema zalantzat hartzen, merkatuen egoera erabat ezberdina izan arren.

2.- Ustiategi bakoitzerako gehienezko-gutxienezko laguntza-mugak, modulazioa

- Ustiategi bakoitzerako gehienezko laguntza-mugak (300.000 €) ezartzearen aldekoak gara. Aurrera aterako ez balitz, Batzordeak planteatzen dituen errenta-tartekako modulazio-proposamenekin ados egongo ginateke, laguntza-eredu banatzaile eta bidezkoagorantz egitea beharrezkoa baita. Landa-garapenerantz murriztutako funtsei dagokienez, nahiago genuke horiek lehen zutabearen (zuzeneko laguntzak) geldituko balira. Nolanahi ere, bigarren zutabearen (Landa Garapena) funts-aldaketaren alde egingo genuke, gure iritziz, bigarren zutabearen alde egiteak errenten politika aktiboak bideratzen dituelako, betiere, funts horiek nekazarien errentak (gazteak, inbertsioak, aurre-erretiroak, nekazaritza- eta ingurumen-laguntzak, etab) bultzatzearekin lotuta dauden lehen eta bigarren ardatzeko Landa Garapenerako Planak horien jomuga badira.

3.- Baldintzazkotasuna

- Horren edozein sinplifikazioren alde gaude. Beraz, ez ditugu ulertzen Bruselak bestelako eremuetara (ura, biodibertsitatea...) zabaltzeko dituen asmoak. Bruselak, sustatutako sinplifikaziorako erantzen dituen aldaketak azaldu beharko ditu, eta bereziki, kontrol-arauak.

4.- Eskaintza kontrolatzeko mekanismoak ezabatzea.

- Esne-kuotak desagertzearen kontra-kontrako jarrera dugu, EBeko mendialdeetarako eta familiarako nekazaritzari eusteko ezinbestekoak direlako. Arreta handiz ibili behar da egungo prezioen egoerarekin (gure ustez, laboreena baino koiunturalagoa) eta proposatutako kuoten igoerekin (urteko %1 + %2 2008rako), ustiategi asko bideraezin bilaka ditzaketen prezio-beherakadak eragin ditzakete-eta.

5.- Merkatuan esku hartzeko mekanismoak.

- Batzordearen proposamenen (bakarrik, gari bigun, gurin, esne-hauts gaingabetu eta azukrean esku hartzekoak) eta esportazio-itzulketak erabat kentzearen aldekoak gara. Hori bai, guretzat, hemen, eta ez bigarren zutabearen, da zentzuzkoa arriskuak kudeatzeko mekanismoak sortzea, merkatuetako prezioen hegazkortasunaren, osasun-krisialdien eta klimaren ondoriozko

efektuen litezkeen eraginei aurre egingo dieten mekanismoak, alegia. Gure aburuz, mekanismo horiek nekazarien errentei atxikita egon beharko dute, eta merkatuko beste mekanismo batzuk ezabatzearekin sortutako aurrezkien bitartez, eta azpisektoreetako elkarteak osatzen dituzten ekoizleen esku-hartzearekin finantzatzeko dira.

6.- Erronka berriak eta bigarren zutabea: arriskuaren kudeaketa, uraren kudeaketa, klima-aldaketa, biodibertsitatea eta bioenergia.

- Bigarren zutabea indartzearen aldekoak bagara ere (nekazarien errentei lotutako neurrietarako), erronka horiei landa-garapenetik erantzutearen kontrakoak gara: bai lehen zutabearen (arriskuaren kudeaketa) egon behar dutela uste dugulako, bai dagoeneko EGPeK eta baldintzazkotasunak egoki babesten dituztelako (biodibertsitatea, klima-aldaketa, bioenergia, uraren kudeaketa), zein EBko politika ororen gai orokorrak direlako eta, batik bat, ikerketarako bideratutako funtsen bidez artatu behar direlako.

JORRATUTAKO BESTE GAI BATZUK

Gaur Bruselan izandako elkarriketan, gainera, zera azaldu dio Sailburuak Komisarioari: garrantzitsua dela Ardoaren MABaren erreforma ondoko gutunazal nazionalak deritzenak, hau da, mahastizaintza eta ardogintzako sektorerako zuzendutako inbertsioak eta sustapenak, Autonomia Erkidegoek ezartzen dituzten irizpideen arabera banatzea, eta ez dadila bakarrik MAPAk eztabaidatzeko inolako aukerarik eman gabe bere egiten duen eskumena izan. Izan ere, honako hau da Errioxako JDK osatzen duten komunitate ororen jarrera. Orobat, pentsu eta lehengaien prezio-igoeren ondorioz abeltzaintza-sektoreak une honetan bizi duen arduraren berri ere eman dio Sáenz de Samaniegok Fischer-Boel Komisarioari.